



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

EKONOMIA
ETA ENPRESA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE ECONOMÍA
Y EMPRESA

DONOSTIAKO ATALA
SECCIÓN DONOSTIA / SAN
SEBASTIÁN

GRADU AMAIERAKO LANA 2018-2019

MAKROEKONOMIAREN OINARRIZKO TERMINOLOGIAREN AZTERKETA

Egilea: Maialen Usandizaga Isasa

Tutoreak: Jose Maria Arriola eta Mikel Zurbano

AURKIBIDEA

1. Lanaren nondik norakoak:	3
• Helburuak	
• Justifikazioa	
• Metodologia	
• Emaitzak	
• Ondorioak	
2. Aurrekariak eta lanaren motibazioa	6
3. Helburuak	7
• Termino-zerrenda eleanitzun bat osatzea eta TSOZen jartza	
• Testuen hizkuntzaren zuzentasuna gainbegiratzea	
• Termino-zerrendaren zenbait iturrirekiko erkatzea	
• Terminoak etiketa bidez sailkatzea	
4. Metodologia	9
• Termino-zerrenda osatzea	
• Termino-zerrenda aztertza	
5. Emaitzak	11
• Osatutako termino-zerrendaren ezaugarrien emaitza	
• TZOS datu-basearekiko erkaketaren emaitza	
• Terminoen datu-base terminologoekiko erkaketaren emaitza	
• Termino-zerrendaren sailkapenaren emaitza	
6. Eztabaidea	17
7. Ondorioak	20
8. Bibliografia	21
• I. ERANSKINA	22
• II. ERANSKINA	46
- Zehatza	
- Orokorra	

1. LABURPENA

HELBURUAK:

UPV/EHU-ko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduko lan honen muina Mikel Zurbano irakasleak idatzitako Makroekonomiaren inguruko apunteetako hots, gradu honetako 3. mailako makroekonomia irakasgaian erabiltzen diren apunteetako terminologia erreala biltzea da.

JUSTIFIKAZIOA:

Euskararen normalizazioa indarberritzeko asmotan, 2008an sortu zen Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) Euskal Hizkuntza eta Komunikazio saileko zenbait irakasleren laguntzaz. Burutzen ari garen lana (TSE)¹ programaren inguruan oinarritzen da: adituen artean komunikazio sareak sortzea, terminologia partekatzea eta begi bistan jartzea lortu nahi da. Modu honetan euskararen normalizazioari ekarpen bat egiteko helburuarekin.

METODOLOGIA:

Garaterm lan-ingurunean² TSE programarako garatutako metodologia³ jarraituko dugu. Metodologia hau bi fase nagusitan banatzen da. Lehenengo fasean, makroekonomiaren oinarrizko termino-zerrenda osatuko dugu. Lehenik eta behin, makroekonomiaren terminologiaren azterketarako beharrezkoak diren materialak Garaterm lan-ingurunera igotzen dituzte lanaren bi tutoreek, kasu honetan Mikel Zurbano eta Jose Maria Arriolak egin dute. Gradu honetan, 3. mailan Makroekonomia irakasteko erabiltzen diren apunteak edo testua igo dituzte lan ingurunera. Ondoren, lan-ingurune berean integratuta dagoen Erauzterm termino erauzleak termino-hautagaien zerrenda bat sortuko digu, terminologia erreala erdiautomatikoki erauziz. Erauzitako termino zerrendako hautagaiak eskuz balioztatu ondoren, euskarazko termino-zerrenda lortuko dugu, eta gaztelania ordainak bilatuko ditugu. Modu honetan, makroekonomia arloan erabilitako terminoen termino-zerrenda eleanitza osatuko dugu. Behin termino-zerrenda osatuta, etorkizuneko eginkizun moduan Terminologia Zerbitzurako On-line Sisteman (TZOS)⁴ kontsultagai jartzea izango litzateke, edonorentzat ikusgai egoteko.

Bigarren faseari erreparatuz, orain arte balioztatu dugun termino-zerrendaren azterketa egitean datza. Lehenengo urrats moduan, lortu ditugun terminoen azterketa egingo dugu. Jarraian, TZOS eta Euskalterm⁵ datu-base terminologikoan jasota dagoen terminologiarekin erkatuko dugu eta amaitzeko, termino-zerrenda hau etiketa desberdinenean bidez sailkatuko dugu, sailkapena zehatzagoa izan dadin.

1 http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/tse-programa/


2 http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/

3 Zerbitzu- marketineko terminologiaren azterketa (Yon Oyarzabal, 2016) eta Nekazaritza- marketineko terminologiaren azterketa (Ane Salaberria 2018) Gradu Amaierako lanak izan ditut jarraibide gisa metodologiaren atala osatzerako orduan.

4 <http://tzos.ehu.es/?setuialang=eu>

5 <http://www.euskadi.eus/web01-apeuskal/eu/q91EusTermWar/kontultaJSP/q91aAction.do>

1. Taula: Metodologiaren zortzi urratsak.



Iturria: Norberaren ekarpena

Gainbegiratze-lanak bi eratakoak lirateke, batetik, hizkuntzaren zuzentasuna bermatze aldera egindakoak, eta, bestetik, termino-hautagaiak termino diren ala ez erabakitzekoak.

EMAITZAK:

Lortu dugun emaitzari erreparatuz, gure amaierako termino-zerrendako terminoen konplexutasun-maila txiki-ertainekoak dira termino gehienak osagai bat eta bi osagaiz osatuak daudelako. Horrez gain, gure termino-zerrendako %29,14 soilik daude jasota TZOSen eta Euskalterm datu-base terminologikoan %29,86. Aipatzeko da bi kontsulta-baliabideetan jasota dauden termino kopurueta ez dagoela ia alderik.

Amaitzeko, terminoak sailkatzerako orduan bi proposamen egin ditugu. Bata ikuspegi ekonomiko funtzionaletik hau da, makroekonomiaren aldetik non sei etiketa berezi ditugun:

1. Ondasun eta zerbitzuen merkatua
2. Diru-merkatua
3. Lan-merkatua
4. Kanpo-merkatua
5. Administrazio publikoaren esku-hartzea
6. Esparru orokor analitiko-ideologikoa

GRADU AMAIERAKO LANA 2019

Bestea hizkuntzaren logikaren ikuspegitik etiketa semantiko orokorragoak bereiziz. Hemen aldiz lau etiketa zehaztu ditugu:

1. Aldagaiaik
2. Indizeak
3. Erakundeak eta instituzioak
4. Politikak

ONDORIOAK:

Lan hau burutu ostean lortutako termino-zerrenda eleanitzun honekin, irakasle euskaldunen artean komunikazio-sareak sortzeko eta hiztegiak eta horrelakoak egiten dituztenek terminologia erreala ere kontutan hartzeko lana egin dugu. Horrez gain, lanaren ekarpena zabaltzeko, TZOSen etorkizun batean kontsultagai jartzeaz gain, irakasgaiko eta interesa duten ikasleen artean zabal daiteke.

2. AURREKARIAK ETA MOTIBAZIOA

Lan hau burutzerako edo jorratzerako orduan, aurretik aipatutako TSE programan oinarritu gara. Lehen aipatu bezala, programa hau 2008. urtean sortu zen UPV/EHUko Euskal Hizkuntza eta Komunikazio saileko zenbait irakasleren laguntzarekin jarri zen abian. Euskararen normalizazio eza indarberitzeko eta EHUn lantzen diren espezialitate alorreko terminologiaren garapenean eta finkapenean laguntzen aritu da azken urteotan.

Garaterm⁶ projektua lantzen ari ziren bitartean, euskarazko erregistro espezializatuen garapenean laguntza beharra ikusi zen eta bi lerro nagusiren inguruan zentratu ziren: batetik, arlo akademikoan euskarazko erregistro espezializatu egoki bat bermatzeko dauden beharren inguruan, eta bestaldetik, euskararen estandarizazio eta normalizazio-prozesuan.

Horrela, UPV/EHUn euskaraz lantzen diren espezialitate alorretako erregistro espezializatuen garapen prozesuan zenbait arazorekin topatzen ginela ohartu ziren. Alde batetik, irakasleek sortzen dituzten testuen kalitatea bermatzeko arazoak daude, irakasle batzuen hizkuntza-gaitasun orokorra dela eta. Bestetik, euskararen normalizazio ezetik datozen arazoak, eta amaitzeko, terminologia lanerako erabiltzen den metodologiatik sor daitezkeenak. Lan hau jorratzen goazen heinean, aipaturiko bi arazoei aurre egiten saituko gara.

Helburuak aipatzerakoan esan bezala, terminologia erreala bildu, jaso eta komunitatearen eskura jarri nahi da. Horrela, bai normalizazioari begira, bai terminologiaren garapenari ekarpen bat egiten zaio. Izan ere, bai terminologia arloan ari diren erakundeek, bai normalizazioan ari direnek erabilera akademikoari dagozkion datu errealkak izango dituztelako. Datu horiek garrantzitsuak dira haien hartu beharreko erabakiei begira. Era berean, komunitatera zabaltzearekin terminoak partekatzeko eta garatzeko aukerak irekitzen dira.

Azkenik, terminologiari buruz egin behar dugun lanerako oinarri teoriko-metodologiko egokiak erabiltzea beharrezkoa da. TSE programaren bidez gure lanerako interesgunea da aztertzea adituek erabiltzen duten terminologia erreala nolakoa den, nola sortzen den eta nola aldatzen den. Hori dela eta, esparru honetako ikerketak burutu ahal izateko, ezinbestekoa da adituek erabiltzen dituzten testuak ondo antolatutako corpus batean jasotzea, Garaterm Corpusa⁷ erabili dugu horretarako. TSE programarekin batera, ikerketa, garapena eta irakaskuntza indartzen dituen lan-ingurunea da, hari esker, erregistro akademiko eta espezializatuak iker daitezkeen eta erregistro akademikoen garapenean diharduten adituekin lan egitearen ondorioz, unibertsitate-irakaskuntzan erabiltzen diren dokumentuak jasotzeko metodologia hobetzen joan da denboraren poderioz.

6 Garaterm corpusa:

http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/en

7 Garaterm corpusa TSE programako partaindeetzako dago kontsultagai:

<http://ixa2.si.ehu.es/garaterm-kontsulta/cgi-bin/kontsulta.py>

3. HELBURUAK:

1. Termino-zerrenda eleanitzasun bat osatzea eta TZOSen jartzea:

UPV/EHUko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza gradu amaierako lan honen xede nagusia, Makroekonomiaren oinarrizko terminologia erreala biltzen duen terminoen zerrenda eleanitz bat osatzea da. Honekin batera, Ekonomia Zientzien esparruan euskarazko terminologia errealaren garapen eta finkapenean ekarpen bat egin nahi da, nabaria baita esparru honetan euskarazko terminologia errealaren eskasia. Ekarpen hori egiteko, terminoak testuetan nola erabiltzen diren erakutsi nahi da; izan ere, sarritan terminologia erreala ez da kontutan hartzen hiztegi eta datu-base terminologiekotan.

Beste alde batetik, terminoak ikusgai jarri, irakasleen arteko sareak sortzea eta dinamizatzea lortzen da, elkarlanean aritzu eta modu horretan irakasle bakoitzak bere jakintza eta baliabide linguistikoak partekatzu, pixkanaka eztabaидatu eta finkatzen joateko. Tresna honen bitartez, termino-zerrenda eskura izango du edonork.

Hemen termino-hautagaien zerrendatik termino direnen zerrenda lortzeko aditu izan behar da. Batetik, dugu ikaslearen aditutasuna eta, bestetik, irakaslearena. Makroekonomiaz jakitea ezinbesteko da zerrenda horretara iristeko.

2. Testuen hizkuntzaren zuzentasuna gainbegiratzea:

Makroekonomiaren oinarrizko terminologia aztertzeko, Mikel Zurbanoren apunteak⁸ edo materiala Garaterm lan ingurunera igo dugu. Lehen aipatu bezala, Erauzterm termino erauzleak, erdiautomatikoki termino-hautagaien zerrenda bat erauzi digu. Urrats honetan, jasotako terminoak linguistikoki hizkuntzaren alde guztietatik zuzenak diren errebisatu behar dira. Gainbegiratze-lan honetan, burutu ditugun zuzenketa gehienak marratxoaren erabilera oinarritzen dira. Hori dela eta, egindako lan guztiari esker, termino-zerrenda eleanitz zuzen bat lortu dugu.

2. Taula: Marratxoarekin zerikusia duten zuzenketak.

TERMINOA EUSKARAZ	ZUZENKETA
Doikuntza prezio	Doikuntza-prezio
Eros-ahalmen	Erosahalmen

Iturria: Norberaren ekarpena

⁸ Makroekonomia (Mikel Zurbaro, 2013)

3. Termino-zerrendaren zenbait iturrirekiko erkatzea:

Termino-zerrenda TZOS eta Euskalterm datu-base terminologikoekin konparatu dugu lehenago bildutako terminologiarekin, modu horretan lan honekin egin den ekarpena balioztatu dugu. Aztertutako materialen hots, Mikel Zubanoren apunteetan, erabiltzen den terminologia konsulta-baliabide horietan zenbateraino kodifikatuta dagoen aztertu ahal izateko.

4. Terminoak etiketa bidez sailkatzea:

Lortu dugun termino-zerrenda osatzen duten terminoak alfabetikoki ordenatu beharrean, makroekonomiaren oinarrizko terminoak etiketa ezberdinen bidez sailkatuko ditugu, edukiak argi eta garbi geratzeko.

4. METODOLOGIA

Makroekonomiaren oinarrizko terminologiaren azterketa egiteko bi fase ezberdin bereizten ditugu. Alde batetik, termino-zerrenda osatzea eta bestetik, osatutako termino-zerrenda aztertzea.

1. Termino-zerrenda osatzea:

Enpresen administrazio eta Zuzendaritza (EAZ) graduoko makroekonoamiaren oinarria jorratzen duen testuan zentratu gara, lan honetarako bi tutoreek aurrez aipaturiko apunteak Garaterm lan-ingurunera igo dituzte. Testua kontsultagai jarri da Garaterm corpusean TSE partaideentzat, ondoren, lan-ingurune berean integraturik dagoen Erauzterm termino-erauzleak zenbait estrategia estatistiko eta linguistikoren bitartez, 3.061 termino-hautagaiko proposamen-zerrenda bat eman digu, terminologia erreala erdiautomatikoki erauziz. Lortutako euskarazko termino-zerrendaren ondoren balioztatze-faseari ekin diogu. Lehen urrats moduan, erauzitako termino-zerrenda eskuz balioztatzea nire zeregina izan da, hau da, makroekonomian oinarritzen ziren terminoak hautatu ditut eta ez zirenak baztertu edo ezabatu, horrela 887 termino izatera iritsiz. Behin, pauso hori buruturik, lortutako termino hautagai horiek konprobatu ditugu ea terminoak egokiak diren zehazteko. Gainbegiratze eta konprobatzeko lan honetan adituaren laguntza izan dugu, kasu honetan Makroekonomian aditua den Mikel Zurbanorena. Hori guztia egin ostean, euskarazko terminoak egiaztatu eta aztertu ditugu Jose Maria Arriola euskaran aditua den tutorearen laguntzarekin zenbait zuzenketa egiteko. Era honetan, euskarazko benetako termino-zerrenda egokia lortzean, gaztelaniazko ordainak bilatu ditugu, horrela, makroekonomia irakasgaiko apunteetan erabilitako terminoen termino-zerrenda zehatz eta eleanitzuna lortuz.

Hasierako termino-hautagaien zerrendatik amairako zerrendara iristeko bidea zaila izan da. Makroekonomiako terminoak diren edo ez aukeratzerako garaien gehien kostatu zaigun zatia irizpideak zehaztea izan da. Horretarako makroekonomian aditua den Mikel Zurbanorekin burutu dugu zati hau, lanaren norabidea markatu duen pausoa izan da, pauso erabat garrantzitsua eta ezinbestekoa.

Esan beharra dago, termino hauen guztien artean aldakiak detektatzeko orduan, batetik, erauzleak berak eman dizkigun proposamenak ditugula, eta, bestetik, gaztelaniazko ordainak ematerakoan detektatu ditugunak.

3. Taula: Termino eta aldakien arteko adibidea.

TERMINOA EUSKARAZ	ALDAKIA
Aurrekontuaren defizit	Aurrekontu-defizit
Desenplegu-tasa	Desenpleguaren tasa
Jabe	Ugazaba

Iturria: Norberaren ekarpena

Azken urrats moduan, guk lortutako termino-zerrenda hau Terminologia Zerbitzurako On-line Sisteman (TZOS) kontsultagai jartzea izango litzateke, ikusgai egoteko eta egindako lana erabilgarria izan dadin edonorentzat.

2. Termino-zerrenda aztertzea:

Atal honi dagokionez, termino-zerrendan lortu ditugun terminoak aztertu ditugu. Lehenik eta behin, terminoak eta haien aldakiak kontatu dira eta ondoren, lortutako terminoen azterketa egin da hots, zenbat osagaiz osaturik dauden ikusi dugu terminoen konplexutasun maila zehazteko asmotan.

Horrez gain, termino-zerrendako terminologia aldez aurretik TZOSen jasota dagoen edo ez konprobatu dugu Erauzterm termino-erauzle erdiautomatikoa erabiliz. Honek, TZOSen agertzen diren termino guztiak marka baten bidez adierazten ditu eta termino bakoitza zein alorretan kokatzen den ere adierazten du. Modu honetan ikusi dugu nahiz eta aztertzen ari garen testua makrokoenomian oinarritu, hau da, Ekonomia Zientzien alorrean, termino batzuk beste zenbait alorretan ere kokatzen direla (Zientzia Juridikoak eta Zuzenbidea, Osasun Zientziak, Zientzia Teknologikoak...)

4. Taula: Terminoak eta zein alor dagokien adibidea.

TERMINOA EUSKARAZ	ALORRA
Atzeraldia ekonomiko	Ekonomia Zientziak
Diru	Ekonomia Zientziak eta Zientzia Juridikoak eta Zuzenbidea
Enpresa	Ekonomia Zientziak, Zientzia Juridikoak eta Zuzenbidea eta Zientzia Teknologikoak

Iturria: Norberaren ekarpena

Egindako lanari informazioa gehitzeko asmotan, beste azterketa bat burutu dugu. Lortutako termino-zerrendako terminoak Euskalterm datu-base terminologikoarekin alderatu dugu, hautatutako terminoak bertan jasotzen diren ala ez konprobatzu.

Azkenik, termino-zerrendako terminoak alfabetikoki soilik ordenatu beharrean, makroekonomiako terminoak etiketa ezberdinaren bidez sailkatu ditugu, edukiak garbiago eta zehatzako ulertzeko helburuz. Bi sailkapen proposamen egin ditugu, zehatza eta orokorra hots, ikuspegi ekonomiko funtzionaletik eta ezagutza-baseen logikaren ikuspegitik.

5. EMAITZAK

Atal honetan, lortu dugun termino-zerrendako termino guztien azterketaren emaitzak azalduko ditugu. Alde batetik, gure terminoen ezaugarrien azterketa egin dugu eta bestaldetik, gure zerrendako termino guziak banan-banan TZOS eta Euskalterm datubasearekin konparatu ditugu, gure laneko terminoak aldez aurretik jasoak zeuden ala ez ziurtatzeko. Horrez gain, zenbateraino jasoak dauden ere aztertu dugu. Azken urrats moduan, gure termino-zerrendako terminoak zehatzago eta garbiago ulertzeko etiketa desberdinen bidez sailkatu ditugu.

1. Osatutako termino-zerrendaren ezaugarriak:

Garaterm lan-ingurunera igotako makroekonomiaren oinarrizko testu edo gradu honetako 3. mailan makroekonomia irakasgaian erabiltzen diren apunteetatik, Erauzterm termino erauzle erdiautomatikoaren bitartez 3.061 termino-hautagai lortu ditugu guztira.

Behin termino-zerrenda bat lorturik, lehenengo urratsa balioztatze-fasea da. Balioztatze-fase hau eskuz burutu dut, hau da, makrokonoamirekin zerikusia duten terminoak onartu ditut eta ez direnak baztertu. Fase honetan burutu dudan bazterketa erabat ziur nagoela egin dut; makroekonomia alorrarekin zerikusirik ez duten eta adiera garbirik ez dituzten hitzak baztetu ditut. Adibidez, *abendu, asma, bider...* horrelako hitzek ez dute inolako loturarik makroekonomiarekin. Hori horrela izanik, lehen urrats hau egin ondoren termino hautagai guztietatik 887 terminotara izatera heldu gara.

Ondoren, makroekonomian aditua den Mikel Zurbanorekin balioztatze-prozesua gainbegiratu dugu. Prozesu honetan terminoak baztertzen jarraitzeko bi irizpide zehaztu ditugu:

1. Terminoaren alor edo diciplina
2. Norabidea adierazten duten hitzak (gorakada, jetsiera...)

Bi irizpide hauek erabiliz termino-zerrenda 887 terminotatik 582 termino izatera jeitsi da. Esan bezela, termino batzuk beste alor edo diciplina batekoak dira hona hemen adibide batzuk: *administrazio, arau, balio absolutu, belaunaldi...* Nahiz eta termino batzuk (*administrazio, arau...*) makroekonomiarekin zerikusia izan, ez dira alor horretakoak eta hori dela eta baztertza erabaki dugu. Beste aldetik, *prezio-igoera, jetsiera, aldaketa, bilakaera...* norabidea zehazten duten termino guztiak ere baztertuak izan dira. Gehitu beharra dago salbuespen moduan, *murrizketa* hitza onartutzat jo dugula helburu makroekonomiko garrantzitsua baita, kasu honetan politikaren norabidea markatzen duelako.

Behin irizpideak aplikaturik lorturiko termino-zerrenda gainbegiratu dugu eta konturatu gara termino batzuk errepikaturik daudela eta horrez gain, termino batzuk aldakiak direla. Adibidez: *diruaren merkatu eta diru-merkatu, irabazi, etekin eta mozkin.* Hori

dela eta, gainbegiratze-fase hau egin ondoren guztira 554 terminoko zerrenda gelditu zaigu, termino-zerrenda horretatik 36 aldakiak dira.

Lortutako termino guztiak osagai kopuruaren arabera sailkatu ditugu, terminoen konplexutasun-maila aztertzeko asmotan. Lehen aipatu bezala, aldakiak barne direlarik, 554 terminoko termino-zerrenda lortu dugu.

5. Taula: Terminoak osagai kopuruaren arabera sailkaturik.


Osagai bat	Bi osagai	Hiru osagai	Lau osagai	Bost osagai	Guztira
162	288	94	9	1	554

Iturria: Norberaren ekarpema

2. TZOS datu-basearekiko erkaketa:

Atal honi dagokionez, TZOSen aldez aurretik jasota dagoen terminologiarekin jorratu dugun konparaketa aztertuko dugu. Erkaketa fase honetan lortutako emaitzen arabera, guk lortutako 554 terminotatik 162 termino soilik agertzen dira TZOSen beste era batera esan da, %29,14 soilik agertzen direla TZOSen.

1. Grafikoa: TZOSen agertzen diren termino-zerrendako terminoak ehunekotan.



Iturria: Norberaren ekarpema

GRADU AMAIERAKO LANA 2019

Horrez gain, makroekonomia ikasgaia Ekonomia Zientzien alorrean kokatzen edo barneratzen den arren, guk lorturiko termino-zerrendako hainbat termino beste alor batzuetan ere barneraturik daude.

Seigarren taula horretan ikus dezakegun moduan, termino-zerrendan dazukagun terminoak zortzi alor desberdinatan barneratuak daude.

6. taula: TZOSen jasota dauden terminoen alorrak.

Bizitza Zientziak	Ekonomia Zientziak	Fisika	Kimika	Matematika	Osasun Zientziak	Zientzia Juridikoak eta Zuzenbidea	Zientziak Teknologikoak
----------------------	-----------------------	--------	--------	------------	---------------------	--	----------------------------

Iturria: Norberaren ekarpena

Lehen aipatu dugun moduan, esan beharra dago termino bat hainbat alorren barruan koka daitekeela. Esate baterako, *gastu* hitza Ekonomia Zientzien alorrean ezik Zientzia Juridikoak eta Zuzenbidea eta Zientzia Teknologikoen barnean sartzen dela.


3. Terminoen datu-base terminologeekiko erkaketaren emaitza:

Jorratu dugun termino-zerrendako terminoak beste kontsulta-baliabide batzuetan duten presentzia aztertu dugu. Horretarako, lehenago erabili dugun Terminologia Zerbitzurako On-line Sistema (TZOS) erabitzeaz gain, Euskalterm datu-base terminologikoa erabili dugu.

2. grafikoan ikus daiketen moduan, gure termino-zerrendatik hau da, 554 terminotatik soilik 166 daude barneratuta Euskalterm datu-base terminologikoan. Datuak beste era batetara interpretatuz, %29,86 bakarrik agertzen da barneratuta.

GRADU AMAIERAKO LANA 2019

2. Grafikoak: Euskalterm datu-base terminologikoan agertzen diren termino-zerrendako terminoak ehunekotan.



Iturria: Norberaren ekarpena

Hau guztiaz gain 7. taulan erreparatu dezakegunez, bi kontsulta-baliabideen konparaketa bat eginez, esan dezakegu gure termino-zerrendako termino gehien biltzen dituen baliabidea Euskalterm dela eta ondoren TZOS doala atzetik. Hala ere, bi kontsulta-baliabideen arteko aldea oso txikia dela ere gehitu beharra dago.

7. Taula: TZOS eta Euskaltermen jasota dauden glosategiko terminoak.

TZOS	EUSKALTERM
162	166

Iturria: Norberaren ekarpena

Kontsulta-baliabideetan jasota dauden edo ez aztertu ditugun termino gehienak osagai bat edo bi osagaiz osatuak zeuden. Hori horrela izanik, TZOS eta Euskaltermen barneratuta dauden termino gehienek konplexutasun maila txiki-ertaina dela ondoriozta dezakegu.


Azpimarratzeko da baita kontsulta-baliabideetan jasota dauden termino guztiak ez direla berdinak. Adibidez TZOSen *elkartruke* hitza ez dago jasota eta Euskaltermen bai aldiz.

8. Taula: Termino berdinak jasota dauden ala ez bi konsulta-baliabideetan.

TERMINOA EUSKARAZ	TZOS	EUSKALTERM
Enplegu-maila natural	EZ	BAI
Hazkunde-garai	BAI	EZ

Iturria: Norberaren ekarpena

3. Grafikoa: TZOS eta Euskaltermen konparaketa ehunekoetan.



Iturria: Norberaren ekarpena

Egin duguna laburbilduz, goiko grafikoan ageri den moduan, Euskaltern datu-base terminologikoan agertzen diren termino kopurua hots, 166 termino eta TZOSen ageri direnen hau da, 162 terminoren arteko aldea ez dela oso haundia. Aipatzekoa da hala ere, guk lortutako termino-zerrendako termino ia erdiak baino gutxiago ez direla ageri bi konsulta-baliabideetan.

4. Termino-zerrenda sailkatzea:

Lehenagotik aipatu bezala, burutzen ari garen lan edo proiektu honen helburua makroekonomiaren oinarrizko terminologiaren termino-zerrenda bat lortzea da. Lortutako emaitza TZOS konsulta-baliabidera igoaz etorkizun batean bai aditu zein ikasle edo edonork informazio hori eskuragarri izan dezan.

Gure termino-zerrendako terminoak alfabetikoki ordenatu ditugu eta horri sakontasun maila handiago bat emateko asmoz, terminoak etiketa ezberdinen bidez sailkatu ditugu. Makroekonomiaren oinarritzen diren terminoak direla kontutan izanik, Mikel

Zurbano irakasgai hortan aditua den irakaslearen laguntzarekin sailkapenerako erabili ditugun etiketak zehaztu ditugu zeintzuk izango diren. Etiketak hautatzerako orduan, apunteetako formatua kontutan izanik, hainbat merkatu ezberdin daudela konturatu gara, beraz bide horretatik jo dugu. Honako etiketa hauek berezi edo aukeratu ditugu:

1. Ondasun eta zerbitzuen merkatua
2. Diru-merkatua
3. Lan-merkatua
4. Kanpo-merkatua
5. Administrazio publikoaren esku-hartzea
6. Esparru orokor analitiko-ideologikoa (etiketa guztietañ edo bat baino gehiagotan barneratuta daudenean)

Etiketa bidezko sailkapen hau egin ondoren, etiketak orokorragoak izan zitezkeela ohartu gara. Hori dela eta, lau multzo ezberdin bereizi ditugu termino-zerrenda sailkatzerako orduan. Etiketa hauek zehazterako garaian abstrakzio-maila bat gorago jo dugu, hau da, etiketa semantiko orokorragoak hautatu ditugu. Ondoren aipatuko ditudan lau mutzoak izan dira proposatu ditugun etiketa semantikoak.

1. Aldagaiaik
2. Indizeak
3. Erakunde eta instituzioak
4. Politikak

Aipatzeko da erakunde eta instituzio etiketa semantikoan giza jarduerarekin zerikusia duten terminoak barneratu ditugula, hala nola; eragile ekonomikoak, merkatuak eta merkatuen ezaugarriak.

Beraz, termino-zerrendaren sailkapena egiterakoan bi sailkapen mota berezi ditugu. Batetik etiketa zehatzagoak ezarriz makroekonomiaren aldetik eta bestetik, etiketa semantiko orokorragoak ezarriz, hizkuntzaren logikaren aldetik abstrakzio-maila bat gorago iristeko xedeaz.

6. EZTABaida

Amaieran lorturiko termino-zerrendara iristeko prozesua zaila eta luzea izan dela esan beharra dago. Izan ere, hasierako 3.061 termino-hautagai horietatik bukaeran 554 terminoko zerrrenda osatzeko orduan, hainbat zalantza izan baititugu. Batik bat, terminoa baztertzerakoan. Alegia, eztabaidearako puntu bat honakoa litzateke: zer puntutaraino jaso ditugunak makroekonomiako termino diren eta zer puntutaraino kanpoan gelditu direnak ez diren. Horretarako, zer irizpide erabili ditugun ilustratze aldera, bi ezaugarri aipatu ditugu: 1) diziplina eta 2) norabidea.

9. Taula: Bi irizpideen araberako bazterketak.

TERMINOA EUSKARAZ	DIZIPLINA	NORABIDEA
Belaunaldi	X	
Inflazio-tasaren igoera		X

Iturria: Norberaren ekarpena

Bestetik, eztabaidegai dugu ere, terminoak behin finkatuta horiek sailkatzeko egin ditugun bi proposamenak: gaikako sailkapena (irakasgaiaren hezurdura jarraiki) eta etiketa orokorragoena (etiketa semantikoen bila).

Mikel Zurbano makroekonomian aditua den irakaslearekin ikasgaiaren hezurduraren ikuspegiari begira zehaztu ditugu etiketa semantikoak. Kasu honetan, ikasgaia 2 merkatu motatan banatuta dago: barne-merkatua eta kanpo-merkatua. Barne-merkatuaren barruan zenbait merkatu mota bereizi ditugu: Ondasunen eta zerbitzuen merkatua, diru-merkatua eta lan-merkatua. Bereizitako merkatu mota bakoitza etiketa semantiko moduan erabili ditugu. Kanpo-merkatuari dagoekionez, beste etiketa bat bezela zehaztu dugu. Bost etiketa semantiko hauetaz gain, termino batzuk etiketa bat baino gehiagotan edo guztietan barneratzen zirela konturatu gara. Hori dela eta, 6. etiketa bat sortzea erabaki dugu, hots, esparru orokor analitiko-ideologikoa delarik.

Etiketak zehazterako garaian zenbait terminorekin zalantzak izan ditugu. Adibidez: *enpresa*, *enpresari eta enpresen kostu* lan-merkatuan eta ondasun eta zerbitzuen merkatuan barneratzen diren terminoak dira baina etiketa bat soilik ezarri behar denez, esparru orokor analitiko-ideologikoan sartu ditugu. Bestalde, *superabit* kanpo-merkatu eta administrazioaren esku hartzeari lotua dago, beraz bi etiketa ezberdinietan ezin denez barneratu 6. etiketaren barruan sartu dugu. Azkenik, *zerbitzu publiko* terminoa ondasunen eta zerbitzuen merkatuan eta administrazioaren esku hartzean bi etiketatan ezin denez jaso, esparru orokor analitiko-ideologikoan sartu dugu.

10. Taula: Etiketa zehazterakoan zalantzak sortu dizkiguten terminoak.

TERMINOA EUSKARAZ	ETIKETA SEMANTIKOA
Enpresa	Esparru orokor analitiko-ideologikoa
Enpresari	Esparru orokor analitiko-ideologikoa
Enpresen kostu	Esparru orokor analitiko-ideologikoa
Superabit	Esparru orokor analitiko-ideologikoa
Zerbitzu publiko	Esparru orokor analitiko-ideologikoa

Iturria: Norberaren ekarpena

Ezarritako irizpideak aplikaturik, gainbegiratze-faseak eginik eta guk dakiguna eta adituaren jakintzak praktikan jarririk azkenean 554 terminoz osaturiko termino-zerrenda lortu dugu.


Termino-zerrenda sailkatzerako orduan lehen aipatu bezela bi sailkapen mota berezi ditugu. Lehenengo etiketa semantikoak ikuspegi ekonomiko funtzionaletik egin dugu, makroekonomiaren aldetik. Bestetik, abstrakzio-maila bat gorago jo dugu hots, hizkuntzaren logikaren ikuspegi batetik. Bigarren sailkapen honek zenbait arazo ekarri dizkigu, termino guztiak ez baititugu etiketa bidez sailkatu, hau da, sailkapen orokorrago hau ez da hain funtzionala izan. Bi proposamen hauetan, lehenengoan, etiketa semantikoak erabiliz termino guztiak sailkatu ditugu, aldiz, etiketa orokorragoagoak ezarriz zenbait termino sailkatu gabe geratu zaizkigu.

11. Taula: Sailkapen orokorrean etiketa semantikorik gabe gelditu diren terminoak.

TERMINOA EUSKARAZ	ETIKETA GABE
Atzeraldia garai	X
Banku-kontu	X
Prezioen egoera	X
Ziklo	X

Iturria: Norberaren ekarpena

4. Grafikoa: Termino-zerrenda etiketa orokoren bidez sailkatuta ehunekotan.



Iturria: Norberaren ekarpena

Grafikoan ikus dezakegun moduan terminoak etiketa semantiko orokorrean sailkatuz gero, %30,22 etiketarik gabe geldituko ziren.

Bi proposamen hauek erabiltzea erabaki dugu, terminoen etiketak ikuspegi ezberdinatik sailkatu ditugulako eta lortutako emaitzak erabat ezberdinak direlako. Hizkuntzaren logikatik hots, etiketa semantiko orokorrak ezartzea askoz ere zailagoa egin zaigulako, makroekonomiaren ikuspegitik zehaztu ditugun etiketa semantikoak erabakitzeari baino.

7. ONDORIOAK

Hilabete hauetan guztieta burutu dugun lanaren ostean lortu dugun makroekonomiaren oinarriaren termino-zerrenda elanitzun hau, bai orain zein etorkizun batean oso erabilgarria eta lagungarria izango dela pentsatzen dugu; bai irakasle euskaldunen artean sareak sortzeko, bai hiztegiak sortzen dituztenen artean, adituen, aztertutako kontsulta-baliabideak egiten dituztenentzat ... edonorentzat, alegia, terminologia erreala kontutan hartu ahal izateko.

Egin dugun lan hau praktikara eramateko, Terminologia Zerbitzurako On-line Sisteman (TZOS) kontsultagai jartzeaz gain, etorkizun batean makroekonomia irakasgaia ikasten dabiltsan ikasleen artean ere banatu daiteke.

Hasieran genituen 3061 terminotatik lortutako 554 terminoz osaturiko termino-zerrenda lortzeko makroekonomiari buruz dudan jakintza erabat praktikan jarri dut. Horrez gain, etiketa bidezko bi proposamenen sailkapena egiterakoan makroekonomia alorreko edukiak hobeto eta gehiago sakontzeko balio izan dit. Etorkizun edo egunen batean beste norbaitek horrelako sailkapen bat egitea egokia izango litzateke eduki berdinak barneratu ditugun edo ez jakiteko. Alor honetan ezagutza gehiago edo gutxiago duen ikusiko genuke, terminologia zehatzago bat lortuko duen ala ez.

Hasiera batean makroekonomiaren inguruaren zegoen terminologia errealaaren eskasia oso nabaria dela azpimarratu behar dugu. Lan honekin alor horretako terminologia errealaaren eskasiari aurre egiten saiatu gara, hala ere esan beharra dago oraindik asko falta dela hori lortzeko.

Azken aipamen bezala, lan hau Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) programari esker eta bertan integraturik dagoen Garaterm corpusaren bitarte egin dugula. Horrez gain, bi irakasleen ezagutzak eta laguntzeko zein nirekiko erakutsi duten interesa ezinbestekoak izan dira.

8. BIBLIOGRAFIA

Arregi, X.; Arruarte, A.; Artola, X.; Lersundi, M.; Santander, G.; Umbellina, J. (2010) TZOS: Terminologia Zerbitzurako Online Sistema. In Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak: euskararen garapena esparru akademikoetan; Alberdi, X.; Salaburu, P. Ed. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua: Bilbo. 136-153 or.

Oyarzabal, Y. (2016). Zerbitzu marketineko terminologiaren azterketa. GRAL, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.

Salaberria, A. (2017). Nekazaritza-marketineko terminologiaren azterketa. GRAL, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.

San Martin, I. (2013) Terminologia sareak Ehunduz: unibertsitateko ikasgeletan erabiltzen den terminologia ikusgai egin nahi duen programa. In Ugarteburu terminologia jardunaldiak (V). terminologia naturala eta terminologia planifikatua euskararen normalizazioari begira; Alberdi, X. eta Salaburu, P. Ed. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua; Bilbo, 20-32 or.

Zabala, I.; Lersundi, M.; Leturia, I.; Manterola, I.; Santander, G. (2013). GARATERM: euskararen registro akademikoen garapenaren ikerketarako lan-ingurunea. In Ugarteburu terminologia jardunaldiak (V). terminologia naturala eta terminologia planifikatua euskararen normalizazioari begira; Alberdi, X. eta Salaburu, P. Ed. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua; Bilbo, 98-114 or.

Zabala, I.; Lersundi, M.; Martínez, M.; Requero, M.A.; Omaetxeberria, M.J. Biokimikaren terminologiaren deskripzioa: erabilera errealekik hiztegietara. UPV/EHU.

Zurbano, M. (2013). 3. mailako irakasgaia: Makroekonomia. UPV/EHU.

I. ERANSKINA

Termino-zerrenda alfabetikoki sailkatuta

JAKINTZA-ALORRA: Ekonomia Zientziak

ITURRIA: Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoa) > Enpresen administrazio eta Zuzendaritza Gradua > Ekonomia Aplikatua > Makroekonomiaren oinarria

EGILEA: Maialen Usandizaga Isasa

EUSKARA	ALDAKIA	ALDAKIA	GAZTELANIA	VARIABLE
Aberastasun			Riqueza	
Aberastasunaren birbanaketa			Redistribución de la riqueza	
Aktiboen erosketa			Compra de activos	
Aktibotasun-tasa			Tasa de actividad	
Aldagaien hazkunde			Crecimiento de variables	
Aldikotasun-tasa			Tasa de periodicidad	
Araudi			Reglamento	
Arrisku-sari			Prima de riesgo	
Atzeraldí ekonomiko	Atzeraldí		Recesión económica	
Atzeraldí garai			Época de recesión	
Atzeraldí garaietako deflazio			Deflación en época de recesión	
Atzeraldí handi			Gran recesión	
Atzerriko aktibo			Activos extranjeros	
Atzerriko aktiboen erosketa			Compra de activos extranjeros	
Atzerriko inflazio-tasa			Tasa extranjera de inflación	
Atzerriko ondasun			Bien extranjero	
Atzerriko ondasunen prezio			Precio de bienes extranjeros	
Atzerriko ondasunetako gastu			Gasto de bienes extranjeros	
Atzerriko politika fiskal			Política fiscal exterior	

Atzerriko prezio maila			Nivel de precios extranjeros	
Aurreikusitako gastu			Gasto previsto	
Aurreikusitako kontsumo			Consumo previsto	
Aurrekontu publiko			Presupuesto público	
Aurrekontu-defizitaren murritzeta			Restricción del déficit presupuestario	
Aurrekontu-murritzeta			Restricción presupuestario	
Aurrekontuaren defizit	Aurrekontu-defizit		Déficit presupuestario	
Aurrezki			Ahorro	
Aurrezki nazional	Nazio aurrezki		Ahorro nacional	
Aurrezki pribatu			Ahorro privado	
Aurrezki publiko			Ahorro público	
Autoenplegurako laguntza			Ayuda para autoempleo	
Babes sozial			Protección social	
Baliabide			Recurso	
Baliabideen eragin			Impacto de recursos	
Banku			Banco	
Banku-kontu			Cuenta bancaria	
Banku-kontuen ordainketa			Pago de cuentas bancarias	
Banku zentral			Banco central	
Barne-merkatu			Mercado interno	
Barne-merkatuetako funtzionamendu			Funcionamiento de los mercados internos	
Beharreko diru-ordainketa			Pago de necesidad	
Benetako prezio			Precio real	
Berrikuntza			Innovación	

Birkontratacio			Volver a contratar	
Biztanle kopuru			Número de habitantes	
Biztanle landun			Habitante ocupado	
Biztanleria ez-aktibo			Población inactiva	
Biztanleria			Población	
Biztanleria aktibo			Población activa	
Biztanleria aktiboaren lagin			Muestra de la población activa	
Botere monopolistiko			Poder monopolístico	
Botere publiko			Poder público	
BPG erreal	Barne Produktu Gordin erreal		PIB real	Producto Interior Bruto real
BPG errealaren hazkunde	Barne Produktu Gordin errealaren hazkunde		Crecimiento del PIB real	Crecimiento del Producto Interior Bruto real
BPG inflazio	Barne Produktu Gordinaren inflazio		Inflación del PIB	Inflación del Producto Interior Bruto
BPG inflazioaren kausa	Barne Produktu Gordinaren inflazioaren kausa		Causa de inflación del PIB	Causa de inflación del Producto Interior Bruto
BPG nominal	Barne Produktu Gordin nominal		PIB nominal	Producto Interior Bruto en términos nominales
BPGaren deflaktatzaile	Barne Produktu Gordinaren deflaktatzaile		Deflactor del PIB	Deflactor del Producto Interior Bruto
BPGaren urteko hazkunde	Barne Produktu Gordinaren urteko hazkunde		Crecimiento del PIB anual	Crecimiento del Producto Interior Bruto anual
Defizit fiskal			Déficit fiscal	
Defizit publiko			Déficit público	
Defizitaren murrizketa			Restricción del déficit	
Defizitaren murrizketaren eragin			Efecto de restricción del déficit	
Deflaktatzaile			Deflactor	

Deflazio			Deflación	
Desenplegu-aseguru			Seguro de desempleo	
Desenplegu-tasa	Desenpleguaren tasa		Tasa de desempleo	
Desenplegu-tasa efektibo			Tasa efectiva de desempleo	
Desenplegu-tasa natural	Desenpleguaren tasa natural		Tasa natural de desempleo	
Desenpleguaren aldeko prestakuntza			Prestación para el desempleo	
Desinflazio			Desinflación	
Desinflazio-prozesu			Proceso de desinflación	
Dibisa			Divisa	
Dibisen merkatuko eskari			Demanda del mercado de divisas	
Dibisen merkatuko truke			Intercambio del mercado de divisas	
Diru			Dinero	
Diru eskari erreal			Demanda del dinero real	
Diru-kantitate	Diruaren kantitate		Cantidad de dinero	
Diru-politika hedakor			Política monetaria expansiva	
Diru-eskaintza			Oferta de dinero	
Diru-merkatuko oreka			Equilibrio del mercado de dinero	
Diru-politika			Política monetaria	
Diru-politika murrizkor			Política monetaria restrictiva	
Diru-saldo nominal			Saldo nominal	
Diru-sarrera			Ingreso	
Diruaren ekuazio kuantitatibo			Ecuación cuantitativa del dinero	

Diruaren epe			Plazo de dinero	
Diruaren eskari erreal			Demanda real de dinero	
Diruaren gaineko zerga			Impuesto sobre el dinero	
Diruaren hazkunde			Crecimiento de dinero	
Diruaren hazkunde-tasa			Tasa de crecimiento de dinero	
Diruaren kantitate nominal			Cantidad nominal de dinero	
Diruaren merkatu	Diru-merkatu		Mercado de dinero	
Diruaren teoria kuantitatibo			Teoría cuantitativa del dinero	
Diruaren zirkulazio-abiadura			Velocidad de circulación del dinero	
Doikuntza-prezio			Precio de ajuste	
Doikuntza-mekanismo			Mecanismo de ajuste	
Efizientziazko soldata			Salario efectivo	
Egitura ekonomiko			Estructura económica	
Egiturazko inflazio			Inflación estructural	
Egiturazko langabezia			Desempleo estructural	
Egiturazko langabeziaren eragile			Factor de desempleo estructural	
Egoera ekonomiko			Situación económica	
Egoera ekonomiko natural			Situación económica natural	
Egoera hiperinflacionista			Estado hiperinflacionista	
Egoeraren araberako langabezia			Desempleo según la situación	
Ekipo-ondasun			Bienes de equipo	
Ekoizkortasun			Productividad	
Ekonomi politika	Politika ekonomiko		Política económica	

Ekonomi politikaren ebaluazio			Evaluación de la política económica	
Ekonomi politikaren neurri			Medida de la política económica	
Ekonomia			Economía	
Ekonomia-eragile	Eragile-ekonomiko		Agente económico	
Ekonomialari			Economista	
Ekonomialari liberal			Economista liberal	
Ekonomialari neoklasiko			Economista neoclásico	
Ekonomiaren ibilbide			Trayectoria económica	
Ekonomiaren ibilbide historiko			Trayectoria histórica de la economía	
Ekonomiaren izaera multidimentsional			Carácter multidimensional de la economía	
Ekonomiaren produkzio-ahalmen			Capacidad de producción de la economía	
Elkartruke			Intercambio	
Elkartrukearen erlazio			Relación de intercambio	
Energia-baliabide			Recurso energético	
Enplegu			Empleo	
Enplegu osoko egoera			Estado de pleno empleo	
Enplegu osoko produckzio-maila			Nivel de producción de pleno empleo	
Enplegu publiko			Empleo público	
Enplegu-maila natural			Nivel natural de empleo	
Enplegu-politika			Política de empleo	
Enplegu-tasa			Tasa de empleo	

Enplegu-tasa natural			Tasa natural de empleo	
Enpleguaren doikuntza			Ajuste de empleo	
Enpresa			Empresa	
Enpresari			Empresario/a	
Enpresen kostu			Coste de empresas	
Enpresen merkatu-botere			Poder del mercado empresarial	
Enpresen monopoliorako ahalmen			Poder monopolístico de las empresas	
Enpresaetako inbertsio			Inversiones empresariales	
Eragile			Agente	
Erakunde			Organización	
Eredu ekonomiko			Modelo económico	
Eredu keynestar			Modelo keynesiano	
Eredu klasiko			Modelo clásico	
Erlazio erreal			Relación real	
Erlazio lineal			Relación lineal	
Erosahalmen			Poder adquisitivo	
Erosketa			Compra	
Erosketa-saski			Cesta de la compra	
Errenta			Renta	
Errenta maila			Nivel de renta	
Errenta nazionalaren kontu-identitate			Identidad de cuenta de la renta nacional	
Errenta-oreka	Errentaren oreka estatu		Equilibrio de la renta	
Errenta-politika			Política de la renta	
Eskaera			Pedido	

Eskaintza			Oferta	
Eskaintza agregatu			Oferta agregada	
Eskaintza finko			Oferta fija	
Eskaintza-politika			Política de oferta	
Eskaintzaren asaldura			Alteración de la oferta	
Eskaintzaren jokabide			Comportamiento de la oferta	
Eskari			Demanda	
Eskari agregatu			Demanda agregada	
Eskari agregatuauren ekuazio			Ecuación de la demanda agregada	
Eskari agregatuauren eredu			Modelo de la demanda agregada	
Eskari agregatuauren kurba			Curva de la demanda agregada	
Eskari erreal			Demanda real	
Eskari-politika			Política de demanda	
Eskariaren funtzio			Función de demanda	
Eskariaren inflazio			Inflación de la demanda	
Eskariaren osagai			Componente de demanda	
Esportazio			Exportación	
Esportazio garbi	Esportazio neto		Exportación neta	
Estatuko BPG	Estatuko Barne Produktu Gordina		PIB estatal	Producto Interior Bruto estatal
Estatuko inflazio-tasa			Tasa de inflación nacional	
Estatuko KPI	Estatuko Kontsumo Prezio Indizea		IPC estatal	Indice de Precio de Consumo estatal
Etxeko aurrezki			Ahorros de casa	

Eurogune			Zona euro	
Faktore			Factor	
Familia-errenta			Renta familiar	
Familien erosahalmenaren bilkaera			Evolución del poder adquisitivo familiar	
Familien kontsumo-ohitura			Hábitos de consumo familiares	
Finantza-laguntza			Asistencia financiera	
Finantza-merkatu			Mercado financiero	
Finantza-merkatuetako ezaugarri			Características del mercado financiero	
Garai desinflazionista			Época desinflacionista	
Gastu			Gasto	
Gastu erreal			Gasto real	
Gastu publiko			Gasto público	
Gehiegizko eskari			Demanda excesiva	
Gehiegizko lan-eskaintza			Oferta de empleo excesiva	
Gehiegizko soldata			Sueldo excesivo	
Gobernuaren eskaera			Petición del gobierno	
Gordailu			Depósito	
Gutxieneko soldata			Sueldo mínimo	
Hazkunde ekonomiko			Crecimiento económico	
Hazkunde-garai			Época de crecimiento	
Hazkunde orokor			Crecimiento general	
Hazkunde-tasa			Tasa de crecimiento	
Hedakuntza fiskal			Expansión fiscal	
Hedapen ekonomiko			Expansión económica	

Herrialde barneko politika			Política interna del país	
Herrialde barneko produktu			Producto interno del país	
Herrialdeko barruko ekonomia			Economía interna del país	
Herrialde industrializatu			País industrializado	
Herrialde itxiaren eredu makroekonomikoa			Modelo de macroeconomía de un país cerrado	
Herrialdeetako esportazio			Exportación de los países	
Herrialdeko aurrekontu-defizit			Déficit presupuestario del país	
Herrialdeko aurrezki			Déficit presupuestario del país	
Herrialdeko ekonomia			Economía del país	
Herrialdeko inflazio-tasa			Tasa de inflación del país	
Hileko inflazio-tasa			Tasa de inflación mensual	
Hiperinflazio			Hiperinflación	
Igurikapen			Expectativa	
Igurikapenen berrikusketa			Revisión de las expectativas	
Ikuspegi neoklasiko			Panorama neoclásico	
Inbertsio			Inversión	
Inbertsio nazional			Inversión nacional	
Inbertsio pribatu			Inversión privada	
Inbertsio-ondasun			Bien de inversión	
Inbertsio-ondasunen eskari			Demanda de los bienes de inversión	
Indexazio			Indexación	
Indexazio-mekanismo			Mecanismo de indexación	
Industrializazio			Industrialización	
Inflazio			Inflación	

Inflazio differentzial			Inflación diferencial	
Inflazio efektibo			Inflación efectiva	
Inflazio ezegonkor			Inflación inestable	
Inflazio iraunkor			Inflación permanente	
Inflazio mota			Tipo de inflación	
Inflazio-tasaren bilakaera			Evolución de la tasa de inflación	
Inflazio-tasa			Tasa de inflación	
Inflazio-tasa negatibo			Tasa de inflación negativa	
Inflazioaren araberako soldata			Sueldo vinculado a la inflación	
Inflazioaren determinatzaire			Determinante de la inflación	
Inflazioaren differentzia			Diferencia de la inflación	
Inflazioaren igurikapen			Expectativa de inflación	
Inflazioaren ikuspegia			Perspectiva de la inflación	
Inflazioaren iraunkortasun			Sostenibilidad de la inflación	
Inflazioaren izaera			Naturaleza de la inflación	
Inflazioaren izaera iraunkor			Naturaleza permanente de la inflación	
Inflazioaren jokabidearen aldaketa			Cambio en el comportamiento de la inflación	
Inflazioaren kausa			Causa de la inflación	
Inflazioaren neurketa			Medida de la inflación	
Importatutako lehengai			Materia prima importada	
Importazio			Importación	
Instituzio			Institución	
Interes-tasa erreala			Tasa real de interés	

Interes-tasa exogeno			Tasa exógena de interés	
Interes-tasa natural			Tasa natural de interés	
Irabazi	Mozkin	Etekin	Ganancia	Beneficio
Iragankortasun-tasa			Tasa de constancia	
Irekitasun-tasa			Tasa de apertura	
IS erlazio			Relación IS	
IS kurba			Curva IS	
IS kurbaren ekuazio			Ecuación de la curva IS	
IS-LM eredu			Modelo IS-LM	
Itxarondako inflazio			Inflación esperada	
Itxarondako inflazio-tasa			Tasa de inflación esperada	
Itxarondako prezio-maila			Nivel de precio esperado	
Jabe	Ugazaba		Dueño	
Jarduera ekonomiko			Actividad económica	
Jarduera-tasa			Tasa de actividad	
Jardunaldi osoko langile			Trabajador de jornada completa	
Kanbio-tasa			Tipo de cambio	
Kanbio-tasa erreal			Tipo de cambio real	
Kanbio-tasa nominal			Tipo de cambio nominal	
Kanbio-tasen sistema			Sistema de tipo de cambio	
Kanpo-erosketa			Compra exterior	
Kanpo-inbertsio neto			Inversión exterior neto	
Kanpo-saldoen superabit			Superávit de saldos exteriores	
Kanpo-merkatu			Mercado exterior	
Kanpo-sektore			Sector exterior	

Kanpoko enpresa			Sector exterior	
Kanpoko inbertsio neto			Inversión neta externa	
Kanpoko lehia			Competencia externa	
Kanpoko mailegu			Préstamo externo	
Kapital			Capital	
Kapital-stock			Capital stock	
Kapitalaren irteera			Salida de capital	
Kapitalaren intearra neto			Salida neta de capital	
Kapitalen nazioarteko mugimendu			Movimiento de capitales internacionales	
Kontabilitate nazional			Contabilidad nacional	
Kontsumitzaitzaile			Consumidor	
Kontsumitzaitzailearen aurrezkirako lehentasun			Prioridad de ahorro del consumidor	
Kontsumo			Consumo	
Kontsumo-gastu			Gasto de consumo	
Kontsumo-ondasun			Bien de consumo	
Kontsumoko prezio-indize	Kontsumorako prezio indize		Indice del precio del consumo	
Kostu			Coste	
Kostuaren gaineko prezio			Precio sobre los costes	
Kostuen inflazio			Inflación de coste	
KPIren saski	Kontsumo Prezio Indizearen saski		Cesta del IPC	Cesta del Indice de Precio de Consumo
Krisialdi	Krisi		Crisis	
Lan-egoera			Estado del trabajo	
Lan-faktorearen eskari			Demanda del factor de trabajo	

Lan-kontratuaren iraupen			Duración del contrato laboral	
Lan-merkatu			Mercado laboral	
Lan-merkatuko oreka			Equilibrio del mercado laboral	
Lan-errenta			Renta laboral	
Lan-eskaintza			Oferta de trabajo	
Lan-eskari			Demanda de trabajo	
Lan-faktore			Factor laboral	
Lan-kostu			Coste laboral	
Lan-merkatuaren egitura	Lan-merkatuko egitura		Estructura del mercado laboral	
Lan-merkatuaren egoera			Situación del mercado laboral	
Lan-merkatuaren malgutasun			Flexibilidad del mercado laboral	
Lan-merkatuaren zurruntasun			Rigidez del mercado laboral	
Lan-merkatuko desoreka			Desequilibrio del mercado laboral	
Lan-merkatuko doikuntza-mekanismo			Mecanismo de ajuste del mercado laboral	
Lan-merkatuko erreforma			Reforma del mercado laboral	
Lan-merkatuko oreka-egoera			Situación de equilibrio del mercado laboral	
Lanaldi			Jornada laboral	
Lanaren aldikotasun-tasa			Tasa de periodicidad laboral	
Lanaren errendimendu			Rendimiento laboral	
Lanaren produktibitate			Productividad del trabajo	
Lanerako aktibo			Activo laboral	
Langabe			Desempleado/a	
Langabe estructural			Desempleado/a estructural	

Langabe zikliko			Desempleado/a cíclico/a	
Langabeen erregistro			Registro de desempleados	
Langabeen kopuru			Numero de desempleados/as	
Langabezia egoera zikliko			Situación de desempleo cíclica	
Langabezia-garai			Época de desempleo	
Langabezia-tasa			Tasa de desempleo	
Langabezia zikliko			Desempleo cíclico	
Langabezia-tasa natural			Tasa natural de desempleo	
Langabezia	Paro	Desenplegu	Desempleo	
Langabezia urri			Desempleo escaso	
Langabezia-tasaren murizzketa			Disminución de la tasa de desempleo	
Langabeziaren eragile			Agente de desempleo	
Langile			Trabajador	
Langileen borondatezko baja			Baja voluntaria de los trabajadores	
Langileen negoziazio-ahalmen			Poder de negocio de los trabajadores	
Langileen produktibitate			Productividad de los trabajadores	
Lanpostu			Puesto de trabajo	
Lanpostuen arteko egokitzapen			Adaptación entre los trabajos	
Lanpostuen galera			Pérdida de puestos de trabajo	
Lehia			Competencia	
Lehia perfektu			Competencia perfecta	
Lehia perfektuko egoera			Situación de competencia perfecta	

Lehia-doikuntza iraunkor			Ajuste de competencia permanente	
Lehiakortasun			Competitividad	
Lehiaren gaineko araudi			Reglamento de competencia	
LM eredu			Modelo LM	
LM erlazio			Relación LM	
LM hasierako egoera			Situación inicial LM	
LM kurba			Curva LM	
LM kurbaren eraketa			Formación de la curva LM	
Mailegu emaile			Prestamista	
Mailegu emaile neto			Prestamista neto	
Mailegu hartzale			Prestatario	
Mailegu hartzale neto			Prestatario del préstamo neto	
Makroekonomia			Macroeconomía	
Merkataritza			Comercio	
Merkataritza-balantza superabitario			Balanza comercial superavitaria	
Merkataritza-defizit			Déficit comercial	
Merkataritza-balantzaren defizit			Déficit de la balanza comercial	
Merkataritza-politika			Política comercial	
Merkataritza-superabit			Superávit comercial	
Merkatu			Mercado	
Merkatu-likidezia			Liquidez de mercado	
Merkatu-botere			Poder de mercado	
Merkatu-ekonomia			Economía del mercado	
Merkatuaren ikuspegi			Panorama del mercado	

Merkatuen oreka-egoera			Situación de equilibrio de los mercados	
Merkatuko prezio			Precio del mercado	
Merkatuko eredu			Modelo de mercado	
Merkatuko eskari			Demanda del mercado	
Merkatuko oreka			Equilibrio del mercado	
Merkatuko oreka-baldintza			Condición de equilibrio del mercado	
Merkatuko truke			Intercambio del mercado	
Merkatuko txanpon			Moneda de mercado	
Monopolio-botere			Poder de monopolio	
Motelaldi ekonomiko			Depresión económica	
Munduko esportazio			Exportación mundial	
Munduko gastu			Gasto mundial	
Munduko gastu publiko			Gasto público mundial	
Munduko interes-tasa			Tasa de interés mundial	
Nazioarteko harreman			Relación internacional	
